

Martin Ugaldereen liburu bat. *Hablando con los vascos*

Mikel Ugalde

Zeruko Argia, 586. zk., 1974-05-26: 7.

Liburu interesgarri bat eskaini berria digu Martin Ugalde andoaindar idazleak. Ariel etxeak argitaraturik, hona hemen gure esku artean, elkarrizketa gisa moldatutako liburu berria. Bagenekien Martin Ugalde lan hau prestatzen ari zela. Oso liburu mamitsua da: elkarrizketak biziak, gaiak geure geureak. Oso pozik irakurri dugu.

Liburuan zehar euskaldungoaren arazoa sarri azaltzen da. Bakoitzak bere aldetik herriaz, bere nortasunaz, egoeraz, etorkizunaz, era batera edo bestera, iritziak argi azaltzen ditu: sarritan geure iritziak ber berak, gure baitan hezur mamitu izan diren iritziak.

Erdaraz, gaztelaniaz idatzia den liburu hau euskaldunontzat ere arras onuragarria dateke. Ez gara, egia esan, euskaldunok erdaraz idaztearen zale. Erdaraz idazteko joera nabarmenegia izan bait du euskaldun izeneko idazle askok. Martin Ugaldere berari ere euskaraz gehiago idaz dezan eskaririk egin izan diogu, gogoz irakurtzen diren lanak bait dira bereak.

Zoritzarrez euskal arazoa ulergaitz gertatzen zaio erdaldun askori. Herriak bizi dituen zenbait arazo badagoenik ere ez du lertzen erdaldunak. Horrelakoari probetzugarri gerta dakizkioke Joxe Migel Barandiaranek etniaz esaten dituenak, Mitxelenak hizkuntzaren arazoak aztertzerakoan jalgitzen dituen iritziak, euskara hizkuntzaz eta herri egoeraz esaten direnak irakurtzea. Haintzakotzat hartu beharko liratekeen iritziak dirateke, dudarik gabe.

Gure korapilorik ez dugu askatuko bertako eta inguruko egoera gogoan izan ezik. Ez gara uharte gisa bizi eta ez gara bakarka bizitzeko sortu. Isidoro Fagoagak dioen bezala, herri bakoitzaren ereserki edo himnoak bakea, askatasuna, zuzentasuna, anaitasuna aldarrikatzen du, baina gehienetan nor beraren herria bakarrik du gogoan. Gisa horretako abestiaren esan nahi eta mamia bat bederaren herriari mugatzen zaio. Besterik da, ordea GERNIKAKO ARBOLA abestia: "eman da zabal zazu, munduan frutua...". Liburu honetan azaltzen diren erantzunak gogoan izanik kezka nagusi bat azaltzen dela argi dago: hizkuntzaz, historiaz, izaeraz, kulturaz, nortasunez, sentipenez hain berezia den herri baten bizi nahia sumatzen da. Honatx zer dioen Joxe Migelek: "Izan ere ez kintezke lehengoari begira atzeraka joan, ezta behar ere. Geroari begira beti aurrera jo du euskaldunak; baina, benetan eraginkor joka dezan, gaurko puntu honetara nondik eta nola iritsi garen jakin behar du... Horregatik behar beharrezkoak ditugu gure ikastetxeak gure unibertsitateak, geure kulturaren altxorra azter eta landu dezagun; esperientzia berriez balia eta beste herritatik datorkiguna gogoan izanaz geurearekin gonbara dezagun. Euskalduna ez baita bakarka bizi; gainontzeko gizakumeekin elkartu beharra bere baitan sentitzen du eta gogoz elkarturik bizi da".

Munduan zehar lanik asko egin duen beste euskaldun batek honela dio: "Nere gurasoek euskaraz, jakina, ondo egiten zuten; Bilbaon, gure etxean, euskaraz egiten zen; baina geuk, nere arrebek eta nerauk, eta agian zabarkeria apur batengatik, zoritxarrez, euskal hitz batzuk baino ez genituen ikasi. Izan ere Bilbon, eskoletan batez ere, ez bait zen euskaraz egiten. Orain, berriz, damu dut, ez bait naiteke nere guraso eta arbasoen hizkuntza mintza. Eta, horrez gain, lagundiaren buruzagi bezala bakoitzari bezala bakoitzari nor bere hizkuntzan hitzegitea atsegin izan zait. Damurik, euskaldunengana jotzen dudanean, erdaraz hitzegin beste erremediorik ez dut izaten".

Pasarte ugari alda nitzake lantxo honetara, baina lardaskatu baino ez ote dudan bildur naiz.

Irakur bezate bai, irakur bezate erdaldunek Martin Ugaldereen liburua, gehiegikeria zenbait uxa dadin. Une honetan, erdal aldizkari batetan, "Informaciones" egunerokoan irakurritako pasarte hura dut gogoan: "Abertzalekeria oro bazter dezagun, bai herriak sakabanarazten dituen abertzalekeria bai bakoitzaren nortasuna haintzat hartu gabe guztia molde berean bateratu nahi duen abertzalekeria, zein bata zein bestea kaltegarri bait dira". Bilboko gotzai jaunaren idazlana zela eta geroztik irakurri ahal izan genuen pasarte da hau. Abertzalekeria bi motatakoa izan daitekeela aitortzea ere ez da gutxi. Baina euskaldunok ere irakurri behar dugun liburua da. Patxadaz irakurtzea merezi duena, bertako zenbait esaldi hezurramitu ondoren, herrigintza jator baten bidetatik abia gaitezen.

Liburuari dagokionez, zer esan? Idazleak, periodista denez, periodista gisa idatzitako liburua dela argi dago. Bere egitekoa ongi ezagutzen du Martinek. Galderak irakurri hala, guk geuk egindako galderak bailiren irakurtzen ditugu. Pertsona bakoitzaren barrua eta ingurua ezagutzen, aztertzen, saiatzen da, eta bere lana erraz eta leun idazten du. Izan ere Barandiaran, De la Sota, Mitxelena, Fagoaga, Arrupe eta Ibarrola mundu desberdinetan bizi diren pertsonak dira kezkaz eta politika jokabidez ere bide desberdinak haukeratu izan dituen jendea. Bakoitza bere bizitzaz, lanaz, asmoaz, eginkizunaz mintzatzerakoan barne sentipenez hitzegiten digu.

Beste elkarrizketa batzuk bilduaz, lana osatzeko eta borobiltzeko asmorik badu Martin Ugaldek. Arrera onik izango dute horrelako lanak gure artean. Ez nuke honono beste puntu hau aipatu gabe utzi nahi. Martinek Euskalerrian oso ezagun eta izen haundiko diren pertsonak haukeratu ditu bere elkarrizketak egiteko. Liburuaren egitekoa, agian, horrelakoekin mintzatuz hobeto beteko du. Baina halere bada, nere ustez, bete beharrezko hutsunerik. Hor dauzkagu etenik gabeko lanetan ari diren industri langile, itsas gizon eta baserritarrak. Enpresa gizon baten kezkak agertarazi dizkigu Ramon de la Sotarekin mintzatuz, baina bada beste mundu bat, eguneroko lan eta izerdiz herriaren ardatz osatzen duena, era batera edo bestera pertsonari eta herriari dagokion giroa sortarazi nahirik dabilen jendea.

Hor dugu, bere akats eta guzti, kooperatibismoa, osatuz eta indartuz doan mugimendua. Honek, dagoeneko, jakineko ondoren batzuk sortaraziko ditu; eta gogoan hartzekoa da.

Martin Ugalde etengabeko idazlanetan ari zaigu; bere bokazioari jarraituz, idazle bezala lan txalogarririk egin du. Badu idazle sena, ongi menderatzen ditu egungo

periodismoaren izkutuak, elkarrizketak gatz eta piperrez ongi bizitzen ditu. Idazlanari atxikirik, bizi delarik, lan bikainik eskainiko digun itzaropenez agurtzen dugu.